



# **EUSKARAREN III. PLAN GIDARIAREN (2018-2022) JARRAIPEN-TXOSTENA**

2023ko iraila





## AURKIBIDEA

---

|                                                                                                                |    |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. Aurkezpena.....                                                                                             | 5  |
| 2. UPV/EHUko Euskararen III. Plan Gidariaren (2018-2022) ebaluazioa.....                                       | 7  |
| 2.1. Euskararen III. Plan Gidariaren adierazle orokorren jarraipena.....                                       | 7  |
| 2.2. Graduako euskarazko irakas-eskaintzaren betetze-maila.....                                                | 9  |
| 3. UPV/EHUko Euskararen III. Plan Gidarian (2018-2022) jasotako<br>ekintzen gaineko informazio gehigarria..... | 15 |
| I. ardatza: euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa.....                                                | 15 |
| II. ardatza: formazioa.....                                                                                    | 22 |
| III. ardatza: corpus linguistikoaren plangintza.....                                                           | 27 |
| IV. ardatza: Ikerketa eta hedakuntza.....                                                                      | 32 |
| V. Ardatza: Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala (AZP).....                                              | 37 |



# 1. AURKEZPENA

---

2018ko abenduaren 20ko Gobernu Kontseiluan onartu zen UPV/EHUko Euskararen III. Plan Gidaria. Plan hori 5 ardatz estrategikotan antolatu zen, eta bertan hainbat helburu jaso eta Planaren jarraipenerako 15 adierazle orokor adostu ziren. Adierazle orokor horiez gain, graduako euskarazko irakas-eskaintzaren inguruko helburuak ere proposatzen ditu. Zehazki, gradu guztietan derrigorrezko irakasgaiak euskaraz eskaintzea eta ahalik eta gradu gehien osorik euskaraz ikasi ahal izatea.

Txosten honetan III. Plan Gidariaren jarraipena egiten da. Alde batetik, Euskararen III. Plan Gidarian jasotako 15 adierazle orokorren bilakaera jasotzen dituen aginte-taula aurkezten da. Beste aldetik, graduako irakas-eskaintzaren bilakaeraren berri emateko Planean jasotako taulen betetze-mailaren berri ematen da, Campuska.

Beraz, lehen atal honen edukia bi zatitan antolatu da:

1. Euskararen III. Plan Gidariaren adierazle orokorren jarraipena.
2. Graduako irakas-eskaintzaren betetze-maila.

Bestalde, Euskararen III. Plan Gidarian hainbat ekintza jaso ziren. Ekintza horiek ez dira jarraipen ebaluazioaren parte, baina plangintzaren indarraldian egindako lanaren berri emateko lanabes aproposak dira eta jarraipenerako adierazleekin batera ekintza horien berri ere ematea erabaki dugu, Euskararen IV. Planaren oinarri izan daitezkeelakoan. Ekintzen berri txosten honetako bigarren atal gehigarrian ematen da.



## 2. UPV/EHUKO EUSKARAREN III. PLAN GIDARIAREN (2018–2022) EBALUAZIOA

### 2.1. EUSKARAREN III. PLAN GIDARIAREN ADIERAZLE OROKORREN JARRAIPENA

III. Plan Gidarian adostu zen jarraipenerako adierazle orokorrak erabiliko zirela (1. taula). Aginte-  
taula gisa 15 adierazle orokor hauek adostu ziren. I. eranskinean azaltzen dira adierazle horien  
definizioak.

1. taula

| Zkia. | Adierazlearen izenburua                                                      | Ardatza                                                    |
|-------|------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------|
| 1     | AZPko lanpostuen hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila (%).                 | 1. ardatza: Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa |
| 2     | AZPko lanpostuen derrigortasun-daten ezartze-maila (%).                      | 1. ardatza: Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa |
| 3     | 3. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatuta duten AZPko langileen (%).               | 1. ardatza: Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa |
| 4     | Bikain ziurtagiria lortu duten ikastegien ehunekoa (%).                      | 1. ardatza: Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa |
| 5     | Irakaskuntza-gaitasuna duten jardunaldi osoko irakasle-plaza elebidunen (%). | 1. ardatza: Euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa |
| 6     | Irakaskuntza-gaitasuna duten irakasle-plaza elebidunen ehunekoa (%).         | 2. ardatza: Formazioa                                      |
| 7     | Graduan euskaraz matrikulatutako ECTS kredituen ehunekoa (%).                | 2. ardatza: Formazioa                                      |
| 8     | Graduan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa (%).                    | 2. ardatza: Formazioa                                      |
| 9     | Graduan lehen aldiz eta euskaraz matrikulatzen diren ikasleen (%).           | 2. ardatza: Formazioa                                      |
| 10    | Graduan euskaraz matrikulatzen diren ikasleen ehunekoa (%).                  | 2. ardatza: Formazioa                                      |
| 11    | Master ofizialetan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa (%).         | 2. ardatza: Formazioa                                      |
| 12    | UPV/EHUKo euskarazko argitalpenen kopurua.                                   | 3. ardatza: Corpus linguistikoren plangintza               |
| 13    | Euskaraz egindako doktorego-tesien ehunekoa (%).                             | 4. ardatza: Ikerketa eta hedakuntza                        |
| 14    | Euskaraz egindakoen artean nazioartekoak diren doktorego-tesien ehunekoa (%) | 4. ardatza: Ikerketa eta hedakuntza                        |
| 15    | UPV/EHUKo ikertzaileek euskaraz argitaratutako zientzia-artikuluen kopurua.  | 4. ardatza: Ikerketa eta hedakuntza                        |

Hurrengo taulan (2. taula) jasotzen dira adierazle horiek denak; hasierako datuek Planaren abia-puntu-egoera adierazten dute, eta ondoko zutabeetan agertzen dira Plana indarrean egon artean eman den garapena. Eskuineko zutabe bietan erka daiteke III. Planak ezarri zituen helburuak eta egiazki lortu diren datuak:

2. taula

| Zkia. | Adierazlearen izenburua                                                            | Hasierako datua | 2019 | 2020 | 2021 | 2022ko helburua | 2022              |
|-------|------------------------------------------------------------------------------------|-----------------|------|------|------|-----------------|-------------------|
| 1     | AZPko lanpostuen hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila (%).                       | 73,2            | 75,3 | 76,8 | 78,2 | 77              | 82 <sup>1</sup>   |
| 2     | AZPko lanpostuen derrigortasun-daten ezartze-maila (%).                            | 70,8            | 70,9 | 71,1 | 73,9 | 75              | 75 <sup>1</sup>   |
| 3     | 3. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatuta duten AZPko langileen (%).                     | 37,1            | 38,7 | 38,9 | 43,5 | 41              | 42 <sup>1</sup>   |
| 4     | BIKAIN ziurtagiria lortu duten ikastegien ehunekoa (%).                            | 10              | 21   | 25   | 30   | 50              | 33 <sup>2</sup>   |
| 5     | Irakaskuntza-gaitasuna duten jardunaldi osoko irakasle-plaza elebidunen (%).       | 57,8            | 64,3 | 67,1 | 69,9 | 65              | 70,1 <sup>3</sup> |
| 6     | Irakaskuntza-gaitasuna duten irakasle-plaza elebidunen ehunekoa (%).               | 54,9            | 60,6 | 63,1 | 65,5 | 62              | 66 <sup>3</sup>   |
| 7     | Graduan euskaraz matrikulatutako ECTS kredituen ehunekoa (%).                      | 44,8            | 50,8 | 52,5 | 53,9 | 49              | 53,2 <sup>4</sup> |
| 8     | Graduan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa (%).                          | 82,6            | 84,7 | 88,1 | 90,1 | 87              | 94,4 <sup>4</sup> |
| 9     | Graduan lehen aldiz eta euskaraz matrikulatzen diren ikasleen (%).                 | 51,5            | 52,3 | 53,9 | 53,1 | 57              | 53 <sup>4</sup>   |
| 10    | Graduan euskaraz matrikulatzen diren ikasleen ehunekoa (%).                        | 48,6            | 50,6 | 54,7 | 53,3 | 54              | 53,3 <sup>4</sup> |
| 11    | Master ofizialetan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoa (%) <sup>5</sup> . | 11,3            | 15,3 | 14,6 | 13,8 | 13,5            | 14,1 <sup>6</sup> |
| 12    | UPV/EHUko euskarazko argitalpenen kopurua <sup>7</sup> .                           | 72              | 72   | 65   | 57   | 85              | 70 <sup>8</sup>   |
| 13    | Euskaraz egindako doktorego-tesien ehunekoa (%).                                   | 8,5             | 15,5 | 15,8 | 13,2 | 12              | 15 <sup>9</sup>   |
| 14    | Euskaraz egindakoen artean nazioartekoak diren doktorego-tesien ehunekoa (%).      | 35,7            | 60   | 50   | 50   | 50              | 50 <sup>9</sup>   |
| 15    | UPV/EHUko ikertzaileek euskaraz argitaratutako zientzia-artikuluen kopurua.        | 118             | 133  | 157  | 206  | 145             | 156 <sup>10</sup> |

2. taulan ikus daitekeenez, Planaren ebaluaziorako erabilitako 15 adierazle orokorren jarraipenak erakusten du 15 adierazleetatik 4tan (laranjaz margotutakoak) ez dela lortu helburu gisa jasotako balioa:

<sup>1</sup> Iturria: Pertsonaleko Gerenteordetza (2022/12/31)

<sup>2</sup> Iturria: [www.euskadi.eus/informazioa/bikain-aitortzak/web01-a2bikain/eu/](http://www.euskadi.eus/informazioa/bikain-aitortzak/web01-a2bikain/eu/) (2023/07/12)

<sup>3</sup> Iturria: GAUR (2022/12/31)

<sup>4</sup> Iturria: ARTUS – matrikulazio atala (2022/12/31)

<sup>5</sup> 11. Adierazlea kalkulatzeko, masterretan eskaintzen diren MALen ECTS kredituak ez dira kontuan hartu.

<sup>6</sup> Iturria: Ikasketa Planen eskaintza. Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza.

<sup>7</sup> Euskararen III. Plan Gidarian jasotako adierazle honen hasierako datua kalkulatzeko (72), kontuan hartu ziren serie eta bildumetan sartuak zeuden 12 liburu zaharren argitalpen berriak, horiek ISBN ezberdina baitzuten.

<sup>8</sup> Iturria: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua eta Euskara Zerbitzua (2022/12/31)

<sup>9</sup> Iturria: Doktorego eskola eta Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza (2023/07/15)

<sup>10</sup> Iturria: Ingumaren 2022ko txostena (2023/07/28).

- 4. adierazlea: 2022aren udazkenaz geroztik ez da deialdirik egon Bikain ziurtagiria eskatzeko. Ondorioz, ziurtagiria eskatzeko prest zeuden hainbat ikastegi eta atal ezin izan dira aurkeztu. 2023ko uztaillean ireki da berriro deialdia eta zenbait ikastegi eta atalek parte hartzeko asmoa erakutsi dute (ikus atal gehigarriko 4.1.1.2. eta 4.1.4.1. puntuak).
- 9. eta 10. adierazleak: bi adierazle horiek gorantzako joera erakusten badute ere, badirudi euskaraz ikasten duten ikasleen ehunekoak goia jo duela, aldakortasun gutxi erakusten baitu azken urteetan. EAEko ikasleak bakarrik kontuan hartzen baditugu ere, lehenengoz euskaraz matrikulatzen diren ikasleen ehunekoa % 55,6 izan da 2022–2023 ikasturtean.
- 12. adierazlea: 7. oin-oharrean argitzen denez, hasierako datua kalkulatzeko ISBN eta ISSN berria zuten lan guztiak hartu ziren kontuan eta haien artean liburu zaharren berrargitalpenak ere kontuan hartu ziren. Helburuko kopurua ere hasierakoa datuaren gainean aurreikusi zen. Adierazle horren bilakaerak ere euskarazko argitalpenen kopurua mantentzen dela erakusten du.

Beste adierazle guztietan zehaztutako helburua lortu eta gehienetan gainditu egin da.

## 2.2. GRADUKO EUSKARAZKO IRAKAS-ESKAINTZAREN BETETZE-MAILA

III. Euskara Planak derrigorrezko ikasgai guztiak euskaraz eskaintzea zeukan lehentasunezko helburutzat. Azken urteotan egin den ahaleginaren ondorioz, 2022/23 ikasturtean derrigorrezko irakasgaien % 96,<sup>11</sup> euskaraz eskaini dira UPV/EHUn.

Gradu bakoitzari bere eskaintza euskalduntzeko bidean hizkuntza-ereduaren helburua finkatu zitzaion Planaren hasieran. 2022/2023 ikasturtean orokorrean ezarritako helburuekiko graduako eskaintzaren betetze-maila % 93,8<sup>12</sup>koa da. Maila altu honen gakoak honako hauek dira:

- Euskara eskakizuna duten irakasle plazen aldeko politika.
- Euskaraz matrikulatzeko estrategia aktiboak.
- Euskarazko irakas-materialak sustatzeko politika.

Euskararen III. Plan Gidarian, aurreko planean egindakoari jarraituz, graduen sailkapen bat egin zen, eskaintzen zuten euskaraz ikasteko aukeraren arabera:

- D+: euskarazko eskaintza gaztelaniazkoa baino ugariagoa.
- D: euskarazko eskaintza gaztelaniazkoa adinakoa.
- C: gradu osoa euskaraz ikasteko aukera (hizkuntza ez-ofizialetako derrigorrezkoak izan ezik).
- B: derrigorrezko guztiak euskaraz ikasteko aukera (hizkuntza ez-ofizialetan irakasten direnak izan ezik).
- A: lehenengo bi ikasturteak euskaraz ikasteko aukera.

Euskararen III. Plan Gidariak graduen hasierako egoera islatu zuen, baita 2022rako betetzea espero zen helburu-egoera ere. Ondoren, 3-5 tauletan, Campuska, jasotzen dira gradu bakoitzaren euskarazko eskaintzaren betetze-mailak izan duen bilakaera, Planaren hasieran ezarritako helburuen arabera<sup>13</sup>. Gorriz markatu dira 2022rako helburura iristeko % 80tik behera dauden graduak.

<sup>11</sup> Iturria: 2022/2023 ikasturteko irakas-eskaintza. Ehuneko hau kalkulatzeko garaian ez dira kontuan hartu hizkuntza aztergai duten graduak (Ingeles Ikasketetako Gradua, Euskal Ikasketetako Gradua, Filologiako Gradua eta Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua), taldea osatzeko ikasle gutxiegia dituzten graduak (Itsasketako Gradua, Nautika eta Itsas Garraioko Gradua, Ingurumen Ingeniaritzako Gradua, Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua, Geografiako Gradua eta Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua), Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua eta Lehen Hezkuntzako Gradu Hirueleduna.

<sup>12</sup> Iturria: 2022/2023 irakas-eskaintza eta GAUR. Ehunekoa kalkulatzeko 11. oin-oharrean dauden irakasgai guztiak kontuan hartu dira.

<sup>13</sup> 3-5 Tauletan Euskararen III. Planean jasotako graduak soilik agertzen dira. 2018/2019 ikasturtetik aurrera hainbat gradu berri sortzen joan dira eta horiek ez dira taula horietan jaso.

Graduko euskarazko irakas-eskaintzan oinarritutako hizkuntza-ereduetan bi letra agertzen direnean, adibidez, Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Graduan, hasierako eredu B zen eta helburu bezala B-C jartzen zen, lau urtetan eredu batetik besterako garapena oso zaila irizten baitzitzaion. Faktore askok eragiten die graduen euskara-mailari, eta horregatik graduen euskara mailak igotzeko helburuak ez dira nahitaez kategorikoak, ezta aurrerapenak egiten direnean ere. Hori dela eta, portzentaiaetan erakusten dugu graduak euskarazko eskaintzan izan duten garapena, neurri handi batean bete egin dena.

### 3. taula: ARABAKO CAMPUSA

| Zkia | Graduaren izena                                                           | Hizkuntza-eredua 2013-2017 | Hizkuntza-eredua 2022 | Betetze-maila % |
|------|---------------------------------------------------------------------------|----------------------------|-----------------------|-----------------|
| 1    | Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua                          | C                          | D                     | 74              |
| 2    | Elikagaien Zientzia eta Teknologiako Gradua                               | B                          | B-C                   | 100-85          |
| 3    | Ingurumen Zientzietako Gradua                                             | D                          | D                     | 95              |
| 4    | Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua                     | D                          | D                     | 100             |
| 5    | Haur Hezkuntzako Gradua                                                   | D+                         | D+                    | 100             |
| 6    | Lehen Hezkuntzako Gradua                                                  | D+                         | D+                    | 100             |
| 7    | Farmaziako Gradua                                                         | C                          | D                     | 91              |
| 8    | Geografiako eta Lurralde Antolakuntzako Gradua                            | D                          | D                     | 100             |
| 9    | Historiako Gradua                                                         | D                          | D                     | 95              |
| 10   | Artearen Historiako Gradua                                                | C                          | D                     | 87              |
| 11   | Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua          | A                          | A-B                   | 100-68          |
| 12   | Automobilgintzaren Ingeniaritzako Gradua                                  | —                          | B                     | 100             |
| 13   | Rudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua | A                          | A                     | 15              |
| 14   | Ingeniaritza Mekanikoko Gradua                                            | C                          | C                     | 95              |
| 15   | Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua                                 | B                          | B                     | 68              |
| 16   | Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua                                    | C                          | D                     | 100             |
| 17   | Gizarte Langintzako Gradua                                                | D                          | D                     | 100             |

Arabako Campuseko graduetak euskarazko irakas-eskaintzaren betetze-mailari dagokionez, Planean jasotako 17 graduetatik 3tan ez da iritsi (% 17,6) helburutzat jo zen sailkapenetik % 80 betetzerara. Beste 14ak hizkuntza-eredu berean mantendu dira eta aipagarria da Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduak C mailatik D-rako jauzia egin duela.

## 4. taula: BIZKAIKO CAMPUSA

| Zkia. | Graduaren izena                                                           | Hizkuntza-eredua 2013-2017 | Hizkuntza-eredua 2022 | Betetze-maila % |
|-------|---------------------------------------------------------------------------|----------------------------|-----------------------|-----------------|
| 1     | Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua                          | C-D                        | D                     | 60              |
| 2     | Arteko Gradua                                                             | C                          | D                     | 90              |
| 3     | Biologiako Gradua                                                         | D                          | D                     | 100             |
| 4     | Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua                             | B-C                        | C                     | 100             |
| 5     | Bioteknologiako Gradua                                                    | B-C                        | C                     | 100             |
| 6     | Politika Zientziako eta Kudeaketa Publikoko Gradua                        | D                          | D                     | 100             |
| 7     | Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua                                      | D                          | D                     | 100             |
| 8     | Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Gradua         | C                          | C                     | 85              |
| 9     | Sorkuntza eta Diseinuko Gradua                                            | C                          | D                     | 78              |
| 10    | Ekonomiako Gradua                                                         | C-D                        | D                     | 87              |
| 11    | Haur Hezkuntzako Gradua                                                   | D+                         | D+                    | 100             |
| 12    | Lehen Hezkuntzako Gradua                                                  | D+                         | D+                    | 100             |
| 13    | Gizarte Hezkuntzako Gradua                                                | D+                         | D+                    | 100             |
| 14    | Erizaintzako Gradua                                                       | D                          | D                     | 100             |
| 15    | Zerga Sistemako eta Administrazio Publikoko Gradua                        | B                          | C                     | 75              |
| 16    | Fisioterapiako Gradua                                                     | C                          | D                     | 95              |
| 17    | Fisikako Gradua                                                           | D                          | D                     | 86              |
| 18    | Geologiako Gradua                                                         | D                          | D                     | 90              |
| 19    | Negozioen Kudeaketako Gradua                                              | D                          | D                     | —               |
| 20    | Ingurumen Ingeniaritzako Gradua                                           | B                          | C                     | 83              |
| 21    | Ingeniaritza Zibileko Gradua                                              | D                          | D                     | 96              |
| 22    | Meatzaritza eta Energia Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua               | D                          | D                     | —               |
| 23    | Ingeniaritza Elektronikoko Gradua                                         | C                          | C-D                   | 100-90          |
| 24    | Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua          | D                          | D                     | 95              |
| 25    | Ingeniaritza Elektrikoko Gradua                                           | D                          | D                     | 100             |
| 26    | Industria Antolakuntzaren Ingeniaritzako Gradua                           | C                          | C                     | 89              |
| 27    | Telekomunikazioko Teknologiako Ingeniaritza Gradua                        | C                          | C                     | 99              |
| 28    | Industria Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua                             | D                          | D                     | 100             |
| 29    | Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua | D                          | D                     | 82              |
| 30    | Ingeniaritza Mekanikoko Gradua                                            | D                          | D                     | 92              |
| 31    | Ingeniaritza Kimikoko Gradua                                              | D                          | D                     | 92              |
| 32    | Itsasketako Gradua                                                        | B                          | B                     | 30              |
| 33    | Marketineko Gradua                                                        | C                          | D                     | 88              |
| 34    | Matematikako Gradua                                                       | D                          | D                     | 86              |
| 35    | Medikuntzako Gradua (Lehen zikloa)                                        | D                          | D                     | 100             |
| 36    | Nautika eta Itsas Garraioko Gradua                                        | B                          | B                     | 30              |
| 37    | Odontologiako Gradua                                                      | B                          | B                     | 100             |
| 38    | Kazetaritzako Gradua                                                      | D                          | D                     | —               |
| 39    | Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua                            | D                          | D                     | 95              |
| 40    | Kimikako Gradua                                                           | D                          | D                     | 100             |
| 41    | Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua                               | C                          | D                     | 90              |
| 42    | Soziologiako Gradua                                                       | D                          | D                     | —               |

Bizkaiko Campusean, berriz, 42 graduetatik 5 (% 11,9) ez dira heldu gutxienez % 80an betetzera. Beste 37ak hizkuntza-eredu berean mantendu dira eta aipagarriak dira Biokimikako eta Biologia Molekularreko Gradua eta Bioteknologiako Graduak, B-Ctik C-rako jauzia egin dutela % 100an.

## 5. taula: GIPUZKOAKO CAMPUSA

| Zkia. | Graduaren izena                                                     | Hizkuntza-<br>eredua<br>2013-2017 | Hizkuntza-<br>eredua<br>2022 | Betetze-<br>maila % |
|-------|---------------------------------------------------------------------|-----------------------------------|------------------------------|---------------------|
| 1     | Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua                    | D                                 | D                            | 90                  |
| 2     | Gizarte Antropologiako Gradua                                       | D                                 | D                            | 100                 |
| 3     | Arkitekturaren oinarrietako Gradua                                  | D                                 | D                            | 95                  |
| 4     | Kriminologiako Gradua                                               | C                                 | D                            | 95                  |
| 5     | Zuzenbideko Gradua                                                  | D                                 | D                            | 95                  |
| 6     | Haur Hezkuntzako Gradua                                             | D+                                | D+                           | 100                 |
| 7     | Lehen Hezkuntzako Gradua                                            | D+                                | D+                           | 100                 |
| 8     | Gizarte Hezkuntzako Gradua                                          | D                                 | D                            | 100                 |
| 9     | Erizaintzako Gradua                                                 | D                                 | D                            | 100                 |
| 10    | Filosofiako Gradua                                                  | D                                 | D                            | 85                  |
| 11    | Arkitektura Teknikoko Gradua                                        | D                                 | D                            | 85                  |
| 12    | Industria Elektronikaren eta Automatikaren<br>Ingeniaritzako Gradua | D                                 | D                            | 100                 |
| 13    | Ingeniaritza Zibileko Gradua                                        | C                                 | D                            | 85                  |
| 14    | Energia Berriztagarrien Ingeniaritzako Gradua                       | D                                 | D                            | 94                  |
| 15    | Ingeniaritza Elektrikoko Gradua                                     | D                                 | D                            | 100                 |
| 16    | Informatikaren Ingeniaritzako Gradua                                | D                                 | D                            | 88                  |
| 17    | Ingeniaritza Mekanikoko Gradua                                      | D                                 | D                            | 100                 |
| 18    | Pedagogiako Gradua                                                  | D                                 | D                            | 100                 |
| 19    | Psikologiako Gradua                                                 | D                                 | D                            | 98                  |
| 20    | Kimikako Gradua                                                     | D                                 | D                            | 100                 |

Azkenik, Gipuzkoako Campusean, gradu guztietan betetze-maila % 80tik gorakoa da.

Bestalde, Medikuntzako Graduaren izaera berezia ere aipatzen da III. Planean. Medikuntzako Graduaren bigarren zikloan unibertsitate-ospitaleetako euskarazko irakaskuntzaren jarraipenaren garrantzia azpimarratzen du Planak, unibertsitate-ospitaleetako irakaskuntza-unitateak kon-tuan hartuta (Basurtu, Galdakao, Gurutzeta, Donostia eta Txagorritxu). Osakidetza eta UPV/EHUko ordezkariez osaturiko batzorde mistoarekin lankidetzan euskarazko eskaintza handitzen jarrai-tzeko proposamenen ondorioz beheko taulan (6. taula) unitate bakoitzaren azken ikasturteetako bilakaera ikus daiteke:

6. taula

|             | IRI elebidunak % |           | Euskarazko irakasgaiak % |           |
|-------------|------------------|-----------|--------------------------|-----------|
|             | 2019-2020        | 2022-2023 | 2019-2020                | 2022-2023 |
| Basurtu     | 31,4             | 35,9      | 51,0                     | 96,7      |
| Gurutzeta   | 30,0             | 36,2      | 51,0                     | 96,7      |
| Donostia    | 36,1             | 55,9      | 54,0                     | 100       |
| Galdakao    | —                | 100,0     | —                        | 100       |
| Txagorritxu | 5,6              | 6,6       | 0                        | 0         |

Ezarritako helburuetatik, IRIen euskalduntzeari eta euskarazko eskaintzari dagozkien helburuak bete dira: IRI elebidunen proportzioa handitu egin da, eta euskarazko irakasgaien proportzioak ere gora egin du, Planaren indarraldian.

Medikuntza Graduaren atal klinikoan euskara sustatzeko helburuarekin ekimen bereziak egin dira irakasle elebidunak lortu ahal izateko. Adibidez, Osakidetza-zazpi irakasle klinikorentzat euskara-ikastaro berezia antolatu zen 2021/22 ikasturtean, C1 hizkuntza-eskakizuna lortzeko helburuarekin (EIGA azterketarako prestakuntza). Zazpi pertsona horietatik, lauk lortu zuten EIGA azterketa (C1) gainditzea ikasturte berean.

Plangintza-aldiaren erdialdera, III. Planaren ebaluazio txostena egin zen, eta Euskara Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu. Hemen aurki daiteke: [www.ehu.eus/eu/web/euskara/euskara-ehun](http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/euskara-ehun)



### 3. UPV/EHUKO EUSKARAREN III. PLAN GIDARIAN (2018-2022) JASOTAKO EKINTZEN GAINeko INFORMAZIO GEHIGARRIA

Euskararen III. Plan Gidarian 5 ardatzetan oinarritutako helburu eta ekintzak jaso ziren. Ondorengo lerroetan helburu eta ekintza horien inguruko informazioa eskaintzen da. Beheko atalek Planean adierazitako atal-zenbaki berbera dute, irakurleari jarraipena errazte aldera.

#### I. ARDATZA: EUSKARAREN ERABILERA, PRESENTZIA ETA KUDEAKETA

##### 4.1.1. Unibertsitateko eremu ezberdinetan euskararen erabileraren egoera ezagutu.

*4.1.1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko V. Plangintza aldiaren amaierako ebaluazioan erabilitako metodologiari jarraituz, UPV/EHUren zerbitzuetako laneko esparruan euskararen erabilera eta presentzia neurtu eta 2020. urtean zehar Euskara Batzordean aurkeztu.*

Euskal Herriko Unibertsitateko Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren euskararen ezagutza eta erabileraren egoera aztertzeko, Siadeco-ri eman zitzaion inkesta egitea, Eusko Jaurlaritzak 2013-2017 hizkuntzaren plangintza aldiaren erabilitako metodologia baliatuz. Inkestaren emaitzak Euskara Batzordean aurkeztu eta eztabaidatu ziren 2020. urtean, eta gaur egun UPV/EHUko web orrian argitaratuta daude. Honela laburbildu daitezke inkestaren emaitzak:

- Derrigortasun-data ezarria duten lanpostuetan langileen % 94k egiaztatua du dagokion hizkuntza-eskakizuna eta data ezarri gabe duten postuetan, berriz, % 44k.
- Iruditerian oso orokortua dago euskararen eta gaztelaniaren aldi bereko erabilera. Jendaurreko ekitaldiak dira salbuespena: laurdenak gaztelaniaz egiten dira.
- Langileen erdiek ohitura dute lehen hitza euskaraz egiteko telefonoz; aurrez aurre gutxiagok, hamarretik lauk.
- Zerbitzua euskaraz eskatu duten gehienei zerbitzua euskaraz ematen zaie, baina ez beti: ahozkoan hamarretik biri gaztelania hutsean ematen ematen zaie zerbitzua; idatzizkoan, hamarretik hiruri gaztelania hutsean erantzuten zaie.
- Ahozkoari dagokionez, gaztelania pisu handiagoa hartzen du barruko lan-harremanetan zerbitzua ematerakoan baino. Idatzizkoan euskarak lekua irabazten du, baina gaztelania hutsezko jarduna da nagusi.
- Sortze-hizkuntzan euskarak askoz pisu txikiagoa du gaztelania baino. Ondo idazten dutela dioten artean, gehiago dira gaztelaniaz soilik sortzen dutenak: % 49k gaztelaniaz, % 26k euskaraz eta % 25ek ele bietan.
- Lanpostuan bertan euskarak daraman bilakaerarekin baikor ageri dira langile gehienak (% 39), eta ezkortasuna askoz urriagoa da (% 10).

*4.1.1.2. Bikain ziurtagirirako aurre-txostenerako irizpideetan oinarrituta, ikastegiekin zerbitzu- eta lan-hizkuntza gisa euskararen erabileraren diagnosia egin eta 2020. urtean zehar Euskara Batzordean aurkeztu*

BIKAIN ziurtagiria eskatu duten ikastegiekin egin dute diagnosia (Ikus 4.1.4.1. atala). Dena den, ziurtagiria lortzeko prozedura etenik egon da 2022ko udazkenetik prozedura osoa berriztatu egin delako. Jarraipen txosten hau idazteko garaian ikusi du argia Bikain ziurtagiriari buruzko dekretu berriak, eta, beraz, prozedura berriro martxan dago izena emateko. Ondorioz, ekimen honi 2023ko udazkenetik aurrera ekingo zaio.

4.1.1.3. *Jendaurreko zerbitzua (kafetegiak, fotokopiategiak...) ematen duten kanpoko enpresa bakoitzak hizkuntza ofizialen erabilerarako UPV/EHUk ezarritako baldintzak betetzen dituen aztertu eta beharrezkoa den kasuetan neurri zuzentzaileak hartu.*

4.1.1.4. *Kale-neurketen metodologia unibertsitatera egokitu eta ikasgeletatik eta bulegoetatik kanpoko unibertsitate eremuetan euskararen erabilera neurtu.*

Soziolinguistika Klusterrak, UPV/EHUrekin daukan hitzarmenaren itzalean, kale-neurketen metodologia unibertsitatera egokitu, eta ikastegietako eremu ez-formaletako hizkuntzen erabileraren behaketa egin du urtero (2017-2022). UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak Ikastegietako eremu ez-formaletako hizkuntzen erabilera behatzeko egitasmoa jarri zuen abian 2017-2018 ikasturtean eta urtero egin ditu euskararen erabileraren neurketak, UPV/EHUko ikasle eta irakasleen laguntzaz. SLK-k neurketen emaitzak Euskara Batzordean eta campus bakoitzean aurkeztu eta eztabaidatu zituen 2022ko azaroan.

4.1.1.5. *«Euskarari buruzko kontsulta eta iradokizunen buzoia» eratu, ikusgarritasuna eman eta emaitzak aurkeztu Euskara Batzordean.*

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren webgunean *Euskal Hiztunentzako Bulegoa* izeneko atal bat ageri da, eta bertan *Iradokizunak eta eskaerak* ([www.ehu.eus/eu/web/euskara/contact](http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/contact)), unibertsitateko zein-nahi kidek bere oharrak, kexak edo proposamenak helarazteko. Haatik, komunikazio bide hau ez omen da eragingarria, ez baita bertatik ia ezer jaso. Komunikazioa errazteko, [euskara-sustatu.zuzendaritza@ehu.eus](mailto:euskara-sustatu.zuzendaritza@ehu.eus) helbidea sortu da zuzenean idazteko, eta helbide horri lotua dagoen telefono-zenbakia ere erabil daiteke kexak eta iradokizunak helarazteko. Bide honetatik, 50 bat kexa artatu dira azken lau urteotan. Gainera, Hizkuntz Eskubideen Behatokitik heldu diren 7 kexak dagozkien unibertsitateko ataletako zuzendariei helarazi zaizkie haiek erantzun dezaten, erantzunak errektoretzak jaso eta kudea ditzan. Aldaketa horien berri eman da Euskara Batzordeko bileretan.

#### 4.1.2. **UPV/EHU<sup>n</sup> euskararen erabilera handitzeko estrategiak landu.**

4.1.2.1. *Aktibatu programa ikastegi eta zerbitzuetan sustatu.*

4.1.2.2. *Hizkuntza-ohituretan aldaketak eman daitezen estrategiak martxan jarri.*

4.1.2.3. *Euskalgintzan diharduten erakundeekin elkarlanean euskararen erabilera sustatzeko ekintzak antolatu.*

Hiru ekintza hauek elkarlotuta daude: AKTIBATU programaren baitan, urtero, euskararen erabilera sustatzeko ekimenak diruz laguntzeko deialdia egin da, eta urtez urte, deialdiaren burokrasia soilten joan da. Hasieran, deialdia urtean behin irekitzen zen bakarrik, gero epe bi ireki ziren eskaerak egiteko eta iaiztik urte osoan irekita dago deialdia, eskatzaileek nahi dutenean egin ditzaten eskariak. Eskaria egiteko modua ere soildu da, eta egoitza elektronikoan egiten da papera erabili gabe, eta ebazpena 15 egunen buruan jasotzen du eskatzaileak.

Aurrekontuari dagokionez ere, handituz joan da Euskararen Erabilera Sustatzeko deialdiak erabiltzen duen aurrekontua, 7.000,00 euro ziren 2021ean, eta 14.000,00 eurotara bikoiztu da 2022az geroztik.

Bestalde, UPV/EHU Korrikaren babeslea da. 2019ko ekitaldian eta 2022koan hiru kilometro erosi zituen Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak, bat campus bakoitzeko. Kilometro horiez gain, beste ikastegi eta atal batzuek ere erosi zituzten kilometro gehiago. Gure hiri-buruetako kilometro nagusietan UPV/EHUko ordezkariak eraman zuten lekukoa.

*Euskaraldia* bi aldiz ospatu da plan honen iraunaldian: 2020an eta 2022an. UPV/EHUk bietan parte hartu du, bigarrenean lehenengo aldiz erakunde gisa. 2020. urteko Euskaraldian, 85 arigune sortu ziren. 2022ko Euskaraldian, 93 arigune sortu ziren, horietako asko (%79) aurreko ekitalditik jarraitzen zutenak. *Euskaraldia* egin den urte bietan hainbat ekimen antolatu ziren Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzaren laguntzarekin hiru campusetan.

*Eztabaida Txapelketa* antolatzeko UPV/EHU eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) hitzarmen bat sinatu dute urtero, txapelketa antolatzeko. Eztabaida Txapelketa Eusko Legebiltzarrean edo Nafarroako Parlamentuan egiten da, antolatzen duen unibertsitatearen arabera. Parte hartzera gonbidatzen diren unibertsitateak hauek dira: Mondragon Unibertsitatea (MU), Deustuko Unibertsitatea (DEUSTO), Nafarroako Unibertsitatea (UNA), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionala (UNED) eta Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatea (UPPA).

Euskararen III. Plan Gidariaren epealdian antolatu diren txapelketak 1. taulan agertzen dira:

**1. taula**

|                                        | Parte hartzaileak   | Txapelketaren egoitza  | Irabazlea |
|----------------------------------------|---------------------|------------------------|-----------|
| <b>2019 VII. Eztabaida Txapelketa</b>  | Deusto, UVP/EHU, MU | Eusko Legebiltzarra    | MU        |
| <b>2021 VIII. Eztabaida Txapelketa</b> | Deusto, UVP/EHU, MU | Nafarroako Parlamentua | Deustu    |
| <b>2022 IX. Eztabaida Txapelketa</b>   | MU, NUP, UPV/EHU    | Eusko Legebiltzarra    | UPV/EHU   |

2002ko edizioan lehendabiziko aldiz, UPV/EHUko ADUEEE elkartearekin batera barne-liga bat antolatu da. Bertan, UPV/EHUko sei talde osatu ziren gradu askotatik bildu ziren 24 ikaslerekin: Zuzenbidea, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza, Enpresen eta Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza, Double Bachelor's Degree in Business and Economics, Lan Harreman eta Giza Baliabideak, Fisika, Fiskalitatea eta Administrazio Publikoa, Ingeniaritza Kimikoa, Gizarte Hezkuntza, Ekonomia, Ikusentzunezko Komunikazioa, Arteak eta Ingeniaritza Informatikoa. Barne-liga horretako talde irabazleak Eusko Legebiltzarrean egin zen unibertsitateen arteko txapelketan parte hartu eta han ere txapeldun atera zen.

#### *4.1.2.4. Langile eta ikasle berriei harrera egiten zaienean gure unibertsitatea euskararen erabilerarako aukera gune gisa aurkeztu.*

Ekimen honi dagokionez, bai matrikula garaian, bai euskararen astearen inguruan, UPV/EHUk euskararen erabilera sustatu izan da. Azken bi urteotan arreta berezia ipini da Iparraldeko ikasle euskaldunak erakartzeko. Iparraldean batxilergoa euskarazko ereduak ikasi duten ikasleei urtero eskaintzen zaie UPV/EHUko ate irekien baitan, gure unibertsitatean graduak ikasketak euskaraz egiteko dituzten aukeren berri. Urtero etortzen dira 100 bat ikasle Baionako Bernat Etxepare Lizeotik eta gurean izaten dira goiz batez, aukeratu dituzten ikastegiak bisitatzen. Matrikula garaian, 2022-2023 ikasturtean Bernat Etxepare lizeoko 25 ikasle matrikulatu ziren gurean.

Horretaz gain, UPV/EHUrak atzeritik ikastera datozen ikasleentzako euskara-eskolak eskaintzen dira. Atzeritik iristen diren ikasleei berariazko ikastaroak eskaintzen zaizkie euskarara gertura daitezen, eta beraien egonaldiari etekin handiena atera diezaioten. Ikastaroa egin eta ziurtagiria lortu dutenen kopuruak 2. taulan agertzen dira:

2. taula

| Ikasturtea     | Ziurtagiria lortu zuten ikasleak |
|----------------|----------------------------------|
| 2018/2019      | 54                               |
| 2019/2020      | 62                               |
| 2020/2021      | 29                               |
| 2021/2022      | 62                               |
| 2022/2023      | 72                               |
| <b>Guztira</b> | <b>279</b>                       |

4.1.2.5. *Atal administratiboetan euskarazko zerbitzua eman eta euskaraz lan egitea bultzatzeko erabilerak mikropelanak martxan jarri; lehentasuna emanez atal elebidun gisa trinkotu behar diren atal administratiboak (ikus I. eranskina).*

#### 4.1.3. Zerbitzua euskaraz ematea eta euskara lan-hizkuntza izatea.

4.1.3.1. *Administrazio eta zerbitzuetako langileei zein irakasle-ikertzaile orori lanerako hizkuntza gaitasuna eskuratzeko ikastaroak eta baliabideak eskaini.*

Bi motatako ikastaroak eskaintzen dira:

A) Berariazkoak (TEKAZEL): IVA Pek antolatzen ditu gainerako administrazio publiko eta erakundeetako langileentzako. Hiru deialdi-mota kudeatzen dira:

- Ikasturte osorako, egunean 2 edo 5 orduko liberazioak.
- Bigarren lau hilabeteen, otsailetik ekainera bitartean eguneko 5 orduko liberazioak.
- Udako liberazio trinkoak, udako hilabete batean, eguneko 5 ordukoa.

Beheko taulan, planaren indarraldian deialdietan onartu diren langileen kopuruak ikus daitezke:

3. taula

| Ikasturtea     | Euskarazko berariazkoak | Liberazioak |           |           | Guztira    |
|----------------|-------------------------|-------------|-----------|-----------|------------|
|                |                         | Nagusia     | Azaroa    | Uda       |            |
| 2018/2019      | 28                      | 69          | 9         | 5         | 111        |
| 2019/2020      | 27                      | 59          | 13        | 14        | 113        |
| 2020/2021      | 22                      | 74          | 12        | 9         | 117        |
| 2021/2022      | 23                      | 68          | 10        | 7         | 108        |
| 2022/2023      | 20                      | 60          | 14        | 13        | 107        |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>120</b>              | <b>330</b>  | <b>58</b> | <b>48</b> | <b>556</b> |

UPV/EHUK kudeatzen dituen euskara ikasi eta hobetzeko aukera horiez gain, nork bere kabuz lanorduetatik kanpo egiten dituen euskara ikasteko ikastaroak ere diruz laguntzen dira. Langileen euskara-eskakizuna egiaztatzerako bideratzen da laguntza, 4. taulan ikus daitekeen bezala.

## 4. taula

| Urtea | Emandako dirulaguntza |
|-------|-----------------------|
| 2019  | 6.563,91 €            |
| 2020  | 2.447,08 €            |
| 2021  | 2.009,45 €            |
| 2022  | 2.897,63 €            |

Diru laguntzen kopuruak beherakada nabarmena egin du 2020tik aurrera. Ordura arte UPV/EHUK maila guztietako ikastaroak ordaintzen zituen, baina 2020az geroztik HABEk zuzenean ematen ditu B2 mailara arteko laguntzak eta UPV/EHUK bakarrik C1 eta gorako ikastaroetarako diru laguntzak.

B) Hobekuntza-ikastaroak (IRIei bideratuak): UPV/EHUK EPH2020 plana garatu du, irakasle eta ikertzaileei euskarazko ikastaroak eskaintzeko. Ahozko zein idatzizko maila hobetzeko astean bi orduko ikastaroak dira. Ikastaro hauei buruzko informazio gehiagorako: [www.ehu.eus/eu/web/euskara/ikastaroak-irakasleak](http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/ikastaroak-irakasleak).

Hona ikastaro horietan parte hartzeko deialdietan onartuak izan diren IRIen kopuruak planaren indarraldian (5. taula):

## 5. taula

|                | Hobekuntza-ikastaroak: partaideen kopurua |             |            |                 |            |            |              |
|----------------|-------------------------------------------|-------------|------------|-----------------|------------|------------|--------------|
| Ikasturtea     | EIGA (C1)                                 | ZUZEN+ (C1) | ADITU (C2) | AITZINATU (C2+) | HOBEKUNTZA | TSE        | Guztira      |
| 2018/2019      | 0                                         | 0           | 0          | 10              | 100        | 126        | 236          |
| 2019/2020      | 0                                         | 38          | 0          | 14              | 82         | 192        | 326          |
| 2020/2021      | 3                                         | 28          | 79         | 30              | 43         | 43         | 226          |
| 2021/2022      | 43                                        | 21          | 46         | 28              | 0          | 0          | 138          |
| 2022/2023      | 20                                        | 14          | 45         | 30              | 0          | 0          | 109          |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>66</b>                                 | <b>101</b>  | <b>170</b> | <b>112</b>      | <b>225</b> | <b>361</b> | <b>1.035</b> |

Ikasteko aukera horiez gain, esparru digitalean ere euskara lan hizkuntza izan dadin gure unibertsitatean, ekimen berri bati ekin diogu eta ELIA itzultzaile automatikoa erabiltzen ikasteko ordu biko ikastaroak eskaini ditugu 2022-2023 ikasturtean. Ikus 4.3.1.4. atala informazio gehiagorako.

Laburbilduz, UPV/EHUko kideek aukera zabalak dituzte euskara ikasteko, eta haien euskara gaitasunean aurrera egiteko; horrek gure unibertsitatean euskararen erabilera areagotzeko baldintzak finkatzen ditu, bai teknikari eta administrazioako langileen artean, baita irakasle eta ikertzaileen artean ere.

4.1.3.2. *Ikastegietan eta zerbitzuetan ardura-lanpostuak dituztenek zerbitzua aktiboki euskaraz emateko konpromisoa har dezaten ekimenak sustatu.*

4.1.3.3. *Unibertsitateko laneko taldeetan euskaraz gehiago lan egitea helburu duten ekimen zehatzak diseinatu eta garatu.*

Ikus 4.1.2.1., 4.1.2.2. eta 4.1.2.3. atalak ariguneen gaineko informazio gehiagorako.

4.1.3.4. *Bertaratutako gehiengoa euskara ulertzeko gai denean bilerak euskaraz egiteko aukerak zabaldu.*

UPV/EHUn egiten diren bilera instituzionaletan, bai Errektoretzan, baita ikastegi eta fakultateetan ere, euskaraz aritu ahal izateko UPV/EHUko itzulpengintza- eta interpretazio-zerbitzuak ematen ditu. Hauek dira azken urteotan eman diren zerbitzuak (6. taula):

**6. taula**

| Urtea          | Zerbitzuak |
|----------------|------------|
| 2019           | 95         |
| 2020           | 92         |
| 2021           | 122        |
| 2022           | 129        |
| <b>Guztira</b> | <b>438</b> |

4.1.3.5. *Harremanetarako hizkuntza ofizialen erabileraren inguruko irizpideak eta jarraibideak egokitu eta hedatu.*

Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko Errektoreordetzarekin elkarlanean, esparru digitalak dakartzan berrikuntzak aztertu dira, hizkuntza ofizialen erabileran ekar ditzakeen aukerak eta aldaketak identifikatzeko; adibidez, erabiltzaileak aukeratu ahal izatea hizkuntza bat egoitza elektronikoan, horrek dakartzan aldaketekin. UPV/EHUren egoitza elektroniko berriaren garapenarekin batera gauzatuko da hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak jasotzen dituen gomendioen dokumentu berria.

4.1.3.6. *Ikastegietako Euskara Batzordeetatik euskara bultzatzeko mikroplanak diseinatu eta martxan jarri.*

**4.1.4. Euskara kalitatearen kudeaketarako sistemetan integratu.**

4.1.4.1. *Ikastegiak Bikain ziurtagiria lortzeko bidean jarri kalitatearen kudeaketarako sistemetan hizkuntza-irizpideak txertatuz.*

Orain arte, BIKAIN ziurtagirian izena eman eta maila desberdinetako ziurtagiria 7 ikastegi edota atalek lortu dute. III. Euskararen Plan Gidaria martxan dagoenetik, urdinez nabarmendutako 6k lortu dute:

7. taula

| Ikastegia/atala                              | 2018       | 2019       | 2020        | 2021      | 2022       |
|----------------------------------------------|------------|------------|-------------|-----------|------------|
| Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea | Erdi maila |            |             |           |            |
| Farmazia Fakultatea                          |            | Erdi maila |             |           |            |
| Kimika Fakultatea                            |            |            | Oinarrizkoa |           |            |
| Bilboko Hezkuntza Fakultatea                 |            |            |             | Goi maila |            |
| Arabako Errektoreordetza                     |            |            |             |           | Erdi maila |
| Ekonomia eta Enpresa Fakultatea Gipuzkoa     |            |            |             |           | Erdi maila |
| Gipuzkoako Errektoreordetza                  |            |            |             |           | Erdi maila |

BIKAIN ziurtagiria lortzeko ibilbidean, ikastegiak euskararen egoeraren autodiagnostikoa egin behar du. Azterketa sakon hau baliatu nahi da ikastegiei beraien ekintza plana gara dezaten, eta hobekuntzako bidean jarri daitezen. BIKAIN ziurtagiria lortzeko prozesuan izena ematea ezinezkoa izan da 2022aren udazkenaz geroztik, eta 2023ko uztailan argitaratu da BIKAIN ziurtagiria gidatzen duen prozedura berria. Prozesuak izan duen etenaldi horrek apaldu egin ditu espero genituen emaitzak, hainbat ikastegik izena eman behar baitzuten eta urtebetez zain egon behar izan baitute, 2023-24 ikasturtera arte.

## II. ARDATZA: FORMAZIOA

### 4.2.1. **Graduko euskarazko irakas-eskaintza handitzen jarraitu ahalik eta titulazio gehienak osorik euskaraz egin ahal izateko.**

Euskararen III. Plan Gidariaren helburu nagusietako bat, txosten honen jarraipenerako ataleko 1., 2., 3. eta 4. tauletan jaso dira formazioarekin eta graduen hizkuntza-ereduekin lotutako bilakaeraren adierazle eta datuak. Datu horiek atal honetako helburu eta ekintzen isla dira.

4.2.1.1. *Graduetan euskaldundu behar diren irakasgaien planifikazioa egin eta ikasleen eskaria eta dauden giza baliabideak aztertu.*

4.2.1.2. *Urtero euskarazko irakas-eskaintzaren jarraipena egin, plangintza aldiaren erdian izandako bilakaeraren berri eman eta beharrezko balitz zuzentzeko neurriak proposatu.*

4.2.1.3. *Euskarazko lerroetan matrikulatzeko kanpainak bultzatu.*

4.2.1.4. *Hautazko irakasgaietan talde berean bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko estrategiak diseinatu eta garatu.*

Aipatu bezala, derrigorrezko irakasgaiak euskalduntzea zen III. Planaren lehentasuna, eta helburua ia betea dago, derrigorrezko irakasgaien % 96,5<sup>14</sup> euskaraz eskaintzen baita, gorago esan legez. Beheko taulan (8. taulan), 4.2.1.2. ekintzaren baitan III. Plana abian jarri zenean 2018-2019 ikasturtean euskalduntzeko zeuden derrigorrezko irakasgaiak bildu ziren. Txosten honetarako 2018-2019an euskalduntzeko helburua ezarri zitzaizen irakasgaiak jaso dira.

8. taula

| Gradua    | Derrigorrezko irakasgaia                                                     | 2018-2019      | 2022-2023      |
|-----------|------------------------------------------------------------------------------|----------------|----------------|
| GCTALI10  | 25127 Elikagaien Kalitatearen eta Segurtasunaren Kudeaketa                   | Euskalduntzeko | Euskaldunduta  |
|           | 25130 Haragiaren, Arrainaren eta Produktu Eratorrien Zientzia eta Teknologia | Euskalduntzeko | Euskaldunduta  |
|           | 25132 Diseinua eta Berrikuntza                                               | Euskalduntzeko | Euskaldunduta  |
| GIAMBI 30 | 27847 Ingurumen Zuzenbidea                                                   | Euskalduntzeko | Euskalduntzeko |

Taula horrek III. Euskara Planaren indarraldian izandako bilakaera azaltzen du; horrela, lau irakasgaietatik hiru euskaldundu dira, eta bat falta da.

4.2.1.5. *Graduko ikasleei kanpo-praktikak euskaraz egiteko aukera eskaintzen dieten enpresa eta erakundeak erregistroa sortu.*

Kanpo-praktikak euskaraz egiteko aukerak asko zabaldu dira, erregistratutako enpresek praktika eskaintzan euskaraz egiteko aukera zehazten dutelako. Kanpo-praktikak euskaraz egiteko aukerak, ikasturteka (9. taula):

<sup>14</sup> 2022-2023 ikasturtean derrigorrezko irakasgaien % 93,6 eskaintzen dira gaztelaniaz, % 17,3 ingelesez eta % 0,5 frantsesez.

9. taula

|                  | 2019-2020    | 2020-2021    | 2021-2022    | 2022-2023    |
|------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| <b>Euskara</b>   | 2.603        | 2.910        | 2.841        | 2.986        |
| <b>Elebiduna</b> | 870          | 1.053        | 1.049        | 1.049        |
| <b>Guztira</b>   | <b>3.473</b> | <b>3.963</b> | <b>3.890</b> | <b>4.035</b> |

4.2.1.6. *Euskaraz egiten diren Gradu Amaierako Lanen bilakaera aztertu eta sustapen lana egin ikastegi-ekin batera.*

Plangintza aldian zehar euskaraz egin diren GRALen bilakaera 10. taulan ikus daiteke. Datuek erakusten dute azken urteetan euskaraz defendatutako GRALen ehunekoak gorantz egin duela.

10. taula

| GRALen bilakaera | Denetara | Euskaraz | Euskaraz (%) |
|------------------|----------|----------|--------------|
| 2019-2020        | 7.206    | 2.936    | 40,7         |
| 2020-2021        | 7.360    | 2.987    | 40,6         |
| 2021-2022        | 6.630    | 2.793    | 42,1         |

4.2.1.7. *Esperientzien geletako ikasleak beste gradu batzuetako euskarazko irakasgaietan matrikulatzeko aukera aztertu eta posible bada gauzatu.*

Esperientzia-geletan euskararen presentzia handitzeko ekimen honi Gipuzkoako Campusak ekin dio; beraz, 12. taulan eskaintzen diren datuak campus horri dagozkio bakarrik. *Giza Zientzietako Unibertsitate Titulua* da eskaintzen den titulua, denetara 135 kreditu dituen ([www.ehu.eus/eu/web/gipuzkoako-esperientzia-gelak/giza-zientzietako-unibertsitate-titulua-aurkezpena](http://www.ehu.eus/eu/web/gipuzkoako-esperientzia-gelak/giza-zientzietako-unibertsitate-titulua-aurkezpena)). Titulu horretan euskarazko irakasgai bakarra eskaintzen da, «Ipuin-tailerra» izeneko; horrezaz gain, UPV/EHUko Filosofia, Gizarte Antropologia Pedagogia eta Gizarte Hezkuntza Gradu Ofizialetako euskarazko hautazkoetan matrikulatzeko aukera eman zaie esperientzia-geletako ikasleei 2018/19 ikasturtetik aurrera. Azken urtean gora egin du, 11. taulako datuek erakusten duten legez:

11. taula

|                                                                                 | 2018/19 | 2019/20 | 2020/21 | 2021/22 | 2022/23 |
|---------------------------------------------------------------------------------|---------|---------|---------|---------|---------|
| Ipuin-tailerra                                                                  | 19      | 18      | 16      | 16      | 14      |
| UPV/EHUko gradu ofizialetako irakasgairen batean matrikulatutako ikasle kopurua | 2       | 2       | 1       | 3       | 8       |
| UPV/EHUko gradu ofizialetako zenbat irakasgaitan matrikulatu diren ikasleak.    | 3       | 2       | 1       | 6       | 15      |

Lehenengo lerroan, *Giza Zientzietako Unibertsitate Tituluan eskaintzen den euskarazko irakasgai baka-rrak* daukan matrikula-kopurua erakusten da; hirugarren lerroan, berriz, graduetako irakasgai batean matrikulatu diren esperientzia-geletako ikasle kopurua, askoz ere apalagoa, azken ikasturtean gora egin badu ere. Ekimen honen emaitza apala izan da, eta esperientzia-geletan euskarazko eskaintza handitzeko beste estrategia batzuk landu beharko dira.

#### 4.2.2. Graduondoko eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko euskarazko irakas- eskaintza handitu

Graduondoan oro har euskararen presentzia handitzea da planaren helburua.

##### 4.2.2.1. Euskarazko eskaria duten master ofizialetan irakasgaiak euskaraz eskaintzeko aukera aztertu eta sustatu.

UPV/EHUren master ofizial baten baino gehiagotan eskaintzen diren irakasgaien zerrenda eta azterketa egin da horiek euskalduntzeko ahalegina egiteko, horrela irakasgaiak euskalduntzen egindako lanari etekin handiena ateratzeko (ikusi 11. adierazlea lehenengo ataleko 1. taulan).

##### 4.2.2.2. Masterretako batzorde akademikoekin batera Master Amaierako Lana euskaraz egiteko aukera sustatu, besteak beste, ikasleei espresuki aukera hori dagoela informatuz.

Master-amaierako lanak euskaraz egin daitezzen egindako ekintzen emaitza izan da euskarazko MALen gorakada Planaren indarraldian, hurrengo taulak erakusten duena (12. taula):

12. taula

|           | MALak guztira | MALak euskaraz | MALak euskaraz (%) |
|-----------|---------------|----------------|--------------------|
| 2019-2020 | 1890          | 427            | 22                 |
| 2020-2021 | 2141          | 560            | 26                 |
| 2021-2022 | 2136          | 531            | 25                 |
| 2022-2023 | 2112          | 613            | 29                 |

Master ofizialetan euskaraz eskaintako ECTS kredituen kopurua ez da asko aldatu azken urteotan, 13. taulan ikusten den legez:

13. taula

|           | ECTSak guztira | ECTSak euskaraz |
|-----------|----------------|-----------------|
| 2019-2020 | 7.950          | 1.241 (% 15,6)  |
| 2020-2021 | 7.770          | 1.083 (% 14,0)  |
| 2021-2022 | 7.710          | 1.042 (% 13,5)  |
| 2022-2023 | 7.710          | 1.038 (% 13,5)  |

Graduondokoetan, lanerako eskuduntza ematen duten master ofizialen euskalduntzea zen lehen-tasuna III. Planean. Plangintza aldian zehar hainbat ekimen eraman dira aurrera horretarako. Horietako bat Zuzenbideko master ofizialean euskarazko taldea sortzeko azken urteotan gra-duko ikasleei inkestak egin zaizkie Ikastegiarekin elkarlanean euskaraz ikasteko taldea sortzeko helburuarekin.

#### 4.2.2.3. Berezko ikasketetan euskarazko eskaintza handitzeko neurriak hartu.

Berezko tituluetan, urtero hiru edo lau titulu euskaraz eskaintzea lortu da. 14. taulan ikus daiteke euskaraz eskaintako berezko ikasketen kopuruak bete dituela ezarritako helburuak.

**14. taula**

| BEREZKO TITULUAK | 2018/19   | 2019/20   | 2020/21   | 2021/22   | 2022/23   |
|------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| Gaztelaniaz      | 34        | 39        | 43        | 58        | 59        |
| Euskaraz         | 3 (% 7,6) | 4 (% 8,5) | 4 (% 7,8) | 6 (% 9)   | 5 (% 7,6) |
| Elebidunak       | 2 (% 0,5) | 4 (% 8,5) | 4 (% 7,8) | 1 (% 1,5) | 1 (% 1,5) |
| <b>Guztira</b>   | <b>39</b> | <b>47</b> | <b>51</b> | <b>65</b> | <b>65</b> |

#### 4.3.3. Euskarazko irakaskuntzaren bikaintasuna bilatu.

4.2.3.1. *Graduko ikasketetan euskararen egoeraren azterketarako diagnosi protokoloa egin eta ekintza plan pilotuak diseinatu.*

4.2.3.2. *Irakasleen etengabeko prestakuntza linguistikorako formazio-moduluak eskaini.*

Irakasle-ikertzaileei zuzendutako euskararen hizkuntza prestakuntzarako planak irakasle-ikertzaileen euskara-maila hobetzea, irakaskuntzaren bikaintasuna eta hizkuntza teknikoaren garapena bilatzen ditu.

Horrela, bada, EHP-2020 planean bi plan integratu dira: Hobekuntza Ikastaroak eta Terminologia Sareak Ehunduz. Hobekuntza-ikastaroen baitan lau prestakuntza-programa berri diseinatu dira, egungo premiei erantzutearren: EIGA, ZUZEN+, ADITU eta AITZINATU.

Azken urteetako parte-hartzea islatzen da ondorengo taulan. Prestakuntza programa berriek harrera oso ona izan dute irakasleen artean (15. taula).

**15. taula**

|                            | 2018/19    | 2019/20    | 2020/21    | 2021/22    | 2022/23    | TOTAL        |
|----------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|--------------|
| EIGA (C1)                  | 0          | 0          | 3          | 43         | 20         | 66           |
| ZUZEN+ (C1+)               | 0          | 38         | 28         | 21         | 14         | 101          |
| HOBKUNTZA IKASTAROAK (C1+) | 100        | 82         | 43         | 0          | 0          | 225          |
| ADITU (C2)                 | 0          | 0          | 79         | 46         | 45         | 170          |
| TSE (C2+)                  | 126        | 192        | 43         | 0          | 0          | 361          |
| AITZINATU (C2+)            | 10         | 14         | 30         | 28         | 30         | 112          |
| <b>GUZTIRA</b>             | <b>236</b> | <b>326</b> | <b>226</b> | <b>138</b> | <b>109</b> | <b>1.035</b> |

Gainera, UPV/EHUn irakasle-lanetan aritzeko gaitasuna aitortzen zaie EIGA azterketa gainditzeko dutenei. Ondorengo taulan ikusi daiteke azken urteetako parte-hartzea eta gainditzeko kopurua eta ehunekoa:

16. taula

| Urtea | Parte-hartzaileak | Gaindituak |
|-------|-------------------|------------|
| 2019  | 44                | 14 (31%)   |
| 2020  | 34                | 7 (21%)    |
| 2021  | 15                | 4 (27%)    |
| 2022  | 25                | 5 (20%)    |

Ikastaroen berri UPV/EHUren web-orrian jasotzen da:

[www.ehu.eus/eu/web/euskara/ikastaroak-irakasleak](http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/ikastaroak-irakasleak)

4.2.3.3. *Graduan euskarazko komunikazio akademikoa eta profesionala lantzen duten Euskararen Plan Gidariako irakasgaiak egokitu.*

4.2.3.4. *Euskarazko irakaskuntzarako euskarri diren tresna digitalen garapena bultzatu.*

4.2.3.5. *Hezkuntzako graduetak euskal taldeetan matrikulatutako ikasleen euskarazko komunikazio-gaitasuna hobetzeko esperientzia pilotu bat abiarazi eta beste gradu batzuetara esportagarria den aztertu.*

Hezkuntzako graduetak ikasleen euskara-gaitasuna gradu hasieratik gradua amaitu arte monitorizatu ahal izateko ekimen batgaratzen hasi da UPV/EHU: Euskararen Errore Corpusa. Ikasleen testu errealez osatuta dago eta Europako Hizkuntzen Marko Batuarekin bat dator. Errore Corpusa Hizkuntzen Europar Marko Bateratuaren mailetak testu errealez osatuta dago, hau da, B1, B2, C1 eta C2 maila dagozkien testuez, 120 testu maila bakoitzeko. Lanabes digital honekin, ikasleen euskara-maila automatikoki ebatzi daiteke, eta, ondorioz, Hezkuntza fakultateetan graduatzen diren ikasleen euskara-mailari buruzko informazio aberatsa lortuko da. Corpus hori eskuragarri egongo da euskararen kalitatea eta erabilera aztertzeko UPV/EHUtik web-zerbitzu bidez. Horrez gain, errore corpusa EUDATen atarian argitaratuko da ikertzaileentzat corpusa modu automatikoan prozesatzeko eta euskaraz ikasten ari direnen erroreen ikerketa sustatzeko.

4.2.3.6. *Irakasle-ikertzaileei lotutako arautegiak (irakasleen eta ikertzaileen kontrataziorako arautegia eta irakaskuntzaren esleipenerako arautegia) berrikusten direnean euskararen normalizazioa bultzatzeko neurriak aintzat hartu.*

### III. ARDATZA: CORPUS LINGUISTIKOAREN PLANGINTZA

#### 4.3.1. Euskarazko irakas-materialen eta hizkuntza-baliabideen kopurua handitu.

4.3.1.1. *Irakas-materialen eta ikasliburuaren sorkuntza zein itzulpenetarako plangintzak egin eta deialdiak burutu.*

4.3.1.2. *Irakas-materialen eta ikasliburuaren deialdietan euskarri berrietarako materialgintza sustatu.*

Ikasturte bakoitzean argitaratu diren materialak bi multzotan banatzen dira:

- Ikasmaterialak: ISSN dutenak dira hauek eta sare-argitalpenen atarian argitaratzen dira digi-talki. <https://ikasmaterialak.ehu.eus/>
- Ikasliburuak: ISBN dutenak dira hauek.

17. taula

| Ikasturtea     | Ikasmateriala | Ikasliburua |
|----------------|---------------|-------------|
| 2019           | 14            | 23          |
| 2020           | 7             | 21          |
| 2021           | 8             | 16          |
| 2022           | 13            | 22          |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>42</b>     | <b>82</b>   |

4.3.1.3. *Euskarazko irakas-materialak sortzeko lantalde-proiektuak bultzatu (adibidez, Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuen deialdiaren barruan).*

4.3.1.4. *Euskarri digitaletan euskararen presentzia bultzatzeko ekimenak babestu eta garatu.*

Digitalizazioaren erronkan euskara baztertuta gelditu ez dadin, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzatik zenbait ekimen gauzatu dira komunikazio elebiduna errazten duten lanabes digitalen ezagutza eta erabilera zabaltzeko gure unibertsitatean. Horietako bat, TEKAZELeko langileentzat Elhuyarrek antolatu dugun ikastaroa. Ikastaroaren helburua Elia itzultzaile automatikoa ezagutzea eta erabiltzen ikastea da. Ikastaroak ordu bi iraun du eta parte hartzeko hirugarren edo laugarren hizkuntz eskakizuna (C1, C2) ziurtatuta eduki behar zen. Gure unibertsitatean 186 TEKAZELek daukate C1 maila ziurtatua eta 18k C2 maila; beraz, denetara 204 langile daude C1 euskara maila ziurtatuta dutenak. Ikastaroa aurrez aurrekoa izan da eta parte hartu duten guztiek hilabete batez Elia itzultzailearen lizentzia eta arreta izan dute (18. taula).

18. taula

| IKASTAROA                               | LEKUA                     | PARTAIDEAK |
|-----------------------------------------|---------------------------|------------|
| ELIA itzultzaile automatikoa erabiltzen | Leioan, Errektoreordetzan | 32         |
|                                         | Leioan, Campusean         | 51         |
|                                         | Donostian, Campusean      | 31         |
|                                         | Gasteizen, Campusean      | 13         |
|                                         | Bilbon, Bizkaia Aretoan   | 11         |
| <b>GUZTIRA</b>                          |                           | <b>138</b> |

Denetara, ikastaroetan 138 langilek parte hartu dute; ikastaroaren ondotik asebetetze inkesta bat osatzea eskatu zaie. Inkestaren emaitzak oso positiboak izan dira, partaideei planteamendua eta edukia bikainak iruditu zaizkie, eta ikastaroak Elia erabiltzen irakatsi diela azpimarratu dute.

#### 4.3.2. Euskarazko irakas-materialen kalitate linguistikoa bermatu.

##### 4.3.2.1. Irakas-materialen kalitate linguistikoa bermatzeko irakasle-ikertzaileei formazioa eskaintzen jarraitu.

Ekintza hau gauzatzeko lanabes nagusia EHP-2020 da, UPV/EHUko Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzarako Plana. Izan ere, III. Plan Gidarian islatzen denez, hizkuntza-preskakuntza giltzarri da aurreikusten diren funtsezko helburuak lortzeko. Formakuntza-plan honetan, irakasleei eta ikertzaileei prestakuntza eta baliabideak eskaintzen zaizkie, haiek sortutako irakas-materialen kalitate linguistikoa bermatzeko gai izan daitezen. Ikus 2.3.1.2. atala EPH-2020 planari buruzko zehaztasunetarako.

Zehazki, EHP-2020 baliatuz, AINTZINATU programaren baitan 18 talde eratu dira non 140 irakasle-ikertzaileek parte hartu duten. Talde horien xehetasunak beheko taulan ikus daitezke.

19. taula

|         | Talde-kopurua | Saila/arloa                                                                                                                          |
|---------|---------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 2018/19 | 1             | Kirurgia                                                                                                                             |
| 2019/20 | 2             | Jarduera Fisikoaren eta Kirol Zientziak; Antropologia                                                                                |
| 2020/21 | 5             | Elikagaien Zientziak; Neurozientzien eta Psikologia; Ingeniaritza; Giza Zientziak; Ikus-entzunezko materialak garatzeko talde mistoa |
| 2021/22 | 5             | Enpresa eta ekonomia; Zientzia eta Teknologia; Osasun Zientziak; Giza eta Gizarte Zientziak; Ikus-entzunezko talde mistoa            |
| 2022/23 | 6             | Enpresa eta ekonomia; Ingeniaritza; Zientziak; Osasun Zientziak; Giza eta Gizarte Zientziak; Ikus-entzunezko talde mistoa            |

##### 4.3.2.2. Irakasle-ikertzaileek euskaraz ekoiztutako materialak eta horietan erabilitako terminologia erreala kontsultagai jarri, erregistro akademikoaren normalizazioari laguntzeari begira.

Irakasle-ikertzaileek euskarazko terminologia kontsultatzeko hainbat aukera sustatzen lagundu da. Besteak beste:

- GAIKA izeneko corpora termino-bilduman eskuliburu itzulietatik erauzitako terminoak aurki daitezke: <http://gaika.ehu.eus/eu>
- Ereduzko Prosa Gaur (EPG) – Euskara Institutua
- EHUskaratuak: itzulpen akademikoak kontsultatzeko – Euskara Zerbitzua: <https://ehuskaratuak.ehu.eus/kontsulta/>
- Egungo Testuen Corpora (ETC) – Euskara Institutua [www.ehu.eus/euskara-orria/euskara/ere-duzkoa/](http://www.ehu.eus/euskara-orria/euskara/ere-duzkoa/)
- Hizkuntzen Arteko Corpora (HAC) – Euskara Institutua [www.ehu.eus/ehg/hac/](http://www.ehu.eus/ehg/hac/)
- ZIO corpora – Euskara Institutua [www.ehu.eus/ehg/zio/](http://www.ehu.eus/ehg/zio/)
- Zuzenbide corpora – Euskara Institutua [www.ehu.eus/ehg/zuzenbidea/](http://www.ehu.eus/ehg/zuzenbidea/)

**4.3.3. Euskarazko irakas-materialen, corpusen eta hizkuntza baliabideen erabilera handitu erakunde normalizatzaileekin elkarlana sustatuz.**

4.3.3.1. *Irakasle-ikertzaileek paperean argitaratzen ez dituzten euskarazko irakas-materialak modu askean (open access) kontsultagai jarri.*

4.3.3.2. *Irakasle-ikertzaileek euskaraz ekoiztutako irakas-materialak kontsultagai jarri argitalpenari dagozkion ezagutza-arloetako ikastegietan.*

Irakas-materialen argitalpenen informazioa EHUtaulan argitaratzen da eta gainera e-mailez ere bidaltzen da informazioa. Euskarazko ikasmaterialen datuen bilakaera beheko 20. taulan ikus daiteke.

**20. taula**

|                      | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | GUZTIRA |
|----------------------|------|------|------|------|---------|
| Ikasmaterial-kopurua | 14   | 7    | 8    | 13   | 42      |

Informazio eguneratua web honetan aurki daiteke:

[www.ehu.eus/eu/web/euskara/2022ko-argitalpenak](http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/2022ko-argitalpenak).

4.3.3.3. *Ezagutza arloka unibertsitateak hiztegitikintzan, terminologiaren normalizazioan eta corpus-gintzan egindako lanak komunitatearen eskuragarri jarri, bereziki doktoregoko ikasleen esku.*

Egindako lan guztiak ondorengo taulan agertzen dira. EHUtaulan argitaratzen dira argitalpen berri guztiak.

**21. taula**

|                              | 2019      | 2020      | 2021      | 2022      | Total      |
|------------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|------------|
| Ikasmaterialak               | 14        | 7         | 8         | 13        | 42         |
| Unibertsitateko eskuliburuak | 23        | 21        | 14        | 22        | 80         |
| Monografiak                  | 16        | 16        | 18        | 13        | 63         |
| Serie/bildumak               | 12        | 10        | 6         | 9         | 37         |
| Aldizkariak                  | 4         | 7         | 7         | 4         | 22         |
| <b>GUZTIRA</b>               | <b>81</b> | <b>61</b> | <b>53</b> | <b>61</b> | <b>244</b> |

4.3.3.4. *Irakasleei eta ikasleei gradurako eskuragarri dituzten euskarazko irakas-materialei, corpusei eta hizkuntza baliabideei buruzko informazioa eskaini.*

Informazio hau EHUtaulan argitaratzen da aldiro. Gainera, 2021-2022 ikasturtetik aurrera ikas-materialak argitaratuta dauden webguneko bisitak kontatu dira. 22. taulan ikus daitekeen bezala, bisitak eta erabiltzaile-kopurua goraka egin du azken bi urteetan. Bisitak nondik egiten diren ere jaso da: gehienak bertatik egiten badira ere, atzerriko webguneetatik jasotzen dira bisiten % 10 inguru.

22. taula

|                                 | 2021                                       | 2022                                     | GUZTIRA |
|---------------------------------|--------------------------------------------|------------------------------------------|---------|
| Web-guneak jasotako bisitak     | 19.143                                     | 20.913                                   | 40.056  |
| Erabiltzaile ezberdinen kopurua | 6.910                                      | 7.558                                    | 14.468  |
| Nondik egin den bisita          | Espainiatik: % 89,85<br>Atzeritik: % 10,15 | Espainiatik: % 91,90<br>Atzeritik: % 8,1 |         |

**4.3.3.5. Irakaskuntza-gidetan euskarazko irakas-materialak erreferentzia bibliografikotzat erabiliak izan daitezen ahalbidetu.**

Erreferentzia bibliografikotzat erabili daitezkeen irakas-materialen erreferentziak urtero eguneratzen dira webgune honetan: [www.ehu.eus/eu/web/euskara/2022ko-argitalpenak](http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/2022ko-argitalpenak)

**4.3.3.6. Euskararen normalizazioaren gidaritza daramaten erakundeekin elkarlana sustatu.**

UPV/EHUK, orain arte, 23. taulan agertzen diren hitzarmenak sinatu ditu Euskararen III. Plan Gidariaren baitan, besteak beste:

| Erakundeak                                                                                                                                                                                                                                                                | Helburua                                                                                                                                                   |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>2017</b>                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                            |
| Nafarroako Unibertsitate Publikoa                                                                                                                                                                                                                                         | Ikasleen artean bizikidetzatza-eriketa gisa, elkarriketa eta ideia-alderatzea sustatzeko eta Euskararen erabilera bultzatzeko                              |
| <b>2019</b>                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                            |
| Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua<br>Topagunea Euskara Elkarleen Federazioa<br>Euskaraz Kooperatiba Elkarlea (AEK) Emun<br>Kooperatiba Elkarlea<br>Euskal Herriko Ikastola Europar Kooperatiba Elkarlea<br>Elkar Fundazioa Berria Fundazioa<br>Elhuyar Fundazioa | Euskara eta euskal kulturaren marka-irudiaren gaineko ikerketa-proiektua egiteko                                                                           |
| Gipuzkoako Foru Aldundia<br>EHUA, Mondragon Unibertsitatea, Tecnun,<br>Nafarroako Unibertsitatea                                                                                                                                                                          | Unibertsitate-ikasleen artean euskararen erabileraren aldeko motibazioa lantzeko                                                                           |
| Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako<br>Ingeniarien Elkargoa                                                                                                                                                                                                              | UPV/EHUren eta CAMINOS EUSKADIREn arteko lankidetzan ekimenak egiteko: besteak beste, Ingeniaritza Zibilari buruzko euskarazko lehenengo hiztegia sortzeko |
| <b>2020</b>                                                                                                                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                            |
| IVAP                                                                                                                                                                                                                                                                      | Hizkuntza-prestakuntza eta -normalizazioaren arloan elkarlanean aritzeko                                                                                   |
| Euskara Institutua                                                                                                                                                                                                                                                        | Corpus linguistikoak partekatzeko                                                                                                                          |

|                                                                                                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Eusko Ikaskuntza Iparraldea                                                                                                                 | Iparraldeko ikasleak unibertsitateko ikasketak euskaraz egitera Euskal Herriko Unibertsitatara etortzeko elkarlanerako ildoak zehazteko                                                                                                                                                                                                                            |
| Jakin                                                                                                                                       | Hitzarmen honek hiru helburu ditu:<br>Belaunaldi berriak euskal pentsamenduan formatzeko materialak ekoiztea.<br>Gaurko eta etorkizuneko ikertzaileak abiatzeko euskarazko tresnak sustatzea.<br>Joxe Azurmendiren obra eta ekarpena landu eta transmisio bidean jartzea.                                                                                          |
| Errigora                                                                                                                                    | Hitzarmen honen helburuak honako hauek dira:<br>Nafarroaren hegoaldean bertako elikagaien ekoizpenetik lortzen diren irabaziak euskara sustatzeko erabiltzea.<br>Bidezko merkataritza eta ardurazko kontsumoa sustatzea.<br>UPV/EHUko ikasleek Errigoraren proiektuan parte hartzea.<br>Nafarroako ikasleek ikasketak UPV/EHUn euskaraz egiteko aukerak handitzea. |
| Soziolinguistika Klusterra                                                                                                                  | Lankidetza-esparru bat sortu jarduerak eta lanak egiten jarraitzeko.                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| <b>2021</b>                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| Udako Euskal Unibertsitatea                                                                                                                 | Euskararen Ikerketa eta Sustapena egiteko (Ikergazte)                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| Eusko Ikaskuntza Nafarroako Unibertsitatea<br>Nafarroako Unibertsitate Publikoa Mondragon<br>Unibertsitatea Deustoko Unibertsitatea<br>UNED | Eusko Ikaskuntzaren, UNAVren, UPNaren, Muren, Deusturen, UPV/EHUren eta UNEDen arteko lankidetzarako eremu bat eratzea.                                                                                                                                                                                                                                            |
| Euskaltzaleen Topagunea Federazioa                                                                                                          | Lankidetza-esparru bat sortu jarduerak eta lanak egiten jarraitzeko                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| <b>2022</b>                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| Atzerriko unibertsitateetan euskara eta euskal kultura irakasteko prestakuntza egiteko                                                      | Etxepare Euskal Institutua                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| Gipuzkoako Foru Aldundia<br>Ataungo Udala<br>Jose Miguel de Barandiaran<br>Eusko Ikaskuntza                                                 | Euskal Kulturaren eta euskal identitatearen gogoeta eta transmisioaren Jose Miguel Barandiaran Katedra sortzeko                                                                                                                                                                                                                                                    |
| Gipuzkoako Foru Aldundia                                                                                                                    | Mikel Laboa Katedra bultzatzen jarraitzeko                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| Elhuyar Fundazioa                                                                                                                           | Elkarlanerako                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |

## IV. ARDATZA: IKERKETA ETA HEDAKUNTZA

### 4.4.1. Euskaraz eginiko doktorego-tesien kopuru orokorra handitu eta horien artean bereziki nazioartekoak sustatu.

#### 4.4.1.1. Nazioarteko euskarazko doktorego-tesiak egitearen abantailen gainera zabalkundea egin masterreko ikasleen artean.

Aurkeztu diren tesi guztien artean euskarazkoak zenbat diren eta horietatik nazioartekoak zenbat diren, 24. taulan azaltzen da:

24. taula

|                | Tesiak guztira | Tesiak euskaraz     | Nazioarteko tesiak euskarazkoen artean |
|----------------|----------------|---------------------|----------------------------------------|
| 2019           | 387            | 60 (% 15,5)         | 36 (% 60)                              |
| 2020           | 428            | 67 (% 15,6)         | 32 (% 47,7)                            |
| 2021           | 431            | 66 (% 15,3)         | 38 (% 57,5)                            |
| 2022           | 485            | 63 (% 12,9)         | 32 (% 50,7)                            |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>1.731</b>   | <b>256 (% 14,7)</b> | <b>138 (% 53,9)</b>                    |

#### 4.4.1.2. Bi urterik behin egiten den euskarazko tesi onenen sarietan nazioarteko euskarazko tesiak bereziki balioetsi.

Bi urtean behin Koldo Mitxelena sariak banatu dira euskarazko tesi onenak balioesteko. 25. taulan aurkeztutako tesi-kopuruak jakintza-arloa agertzen dira:

25. taula

| Jakintza-arloa                         | 2020      | 2022      |
|----------------------------------------|-----------|-----------|
| Zientzia Esperimentalen arloan         | 12        | 13        |
| Ingeniaritza eta Arkitekturaren arloan | 16        | 4         |
| Osasun Zientzien arloan                | 17        | 12        |
| Gizarte eta Lege Zientzien arloan      | 16        | 7         |
| Artearen eta Giza Zientzien arloan     | 16        | 8         |
| <b>Guztira</b>                         | <b>77</b> | <b>34</b> |

#### 4.4.1.3. Doktorego-tesia euskaraz egiten ari diren ikertzaileei jakinarazi zein hizkuntza-baliabide dituzten eskura.

EHUtaulan ematen da argitalpen berri eta Euskara Zerbitzuko webean daude eskura hizkuntza-baliabide guztiak.

**4.4.1.4. Nazioarteko euskarazko doktorego-tesien defentsarako laguntza-deialdiaren zabalkundea egin tesia euskaraz egiten ari diren ikertzaileen artean.**

Defentsarako laguntza jaso duten doktoregai-kopurua eta euskaraz aurkeztutakoen % beheko taulan agertzen da. 26. taulan ikus daitekeenez, tesia euskaraz egiten dutenen erdiek baino gutxiagok eskatzen dute defentsarako laguntza.

**26. taula**

| 2019      | 2020      | 2021        | 2022        |
|-----------|-----------|-------------|-------------|
| 24 (% 40) | 27 (% 40) | 34 (% 51,5) | 23 (% 36,5) |

**4.4.1.5. Etorkizuneko doktorego-tesien hazia izango diren euskararen ikerketa soziolinguistikorako proiektuak sustatu.**

Euskal Herriko Unibertsitatea SLKko partaidea da, bertako Zuzendaritza Batzordeko kide delarik. 2019tik aurrera UPV/EHUk eta SLKak elkarlanean Txillardegi-Hausnartu Sariak antolatzen dituzte, etorkizuneko doktorego tesien oinarri izan daitezkeen ikerketa soziolinguistikoak sarituaz. Urtero egiten den lehiaketa honen helburu nagusia euskal soziolinguistika teorikoaren eta metodologikoaren garapena eta berrikuntza da. Euskal soziolinguistikarekin ikertzaileen lana bultzatzea eta beste hainbat ikertzaile ere euskal soziolinguistikaren eremura biltzea bilatzen da. 27. taulan aurkeztutako ikerketa lanak agertzen dira:

**27. taula**

| Urtea          | Aurkeztutako ikerketa lanak |
|----------------|-----------------------------|
| 2019           | 12                          |
| 2020           | 9                           |
| 2021           | 14                          |
| 2022           | 10                          |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>45</b>                   |

**4.4.2. Euskaraz plazaratutako ikerketaren balioa eta oihartzuna handitu.**

**4.4.2.1. Euskaraz plazaratzen den ikerketaren balioa handitzeko UNIBASQ-ekin lantalde bat abiarazi.**

**4.4.2.2. Euskaraz argitaratutako ikerlanak kontuan izan euskararen ezagutza balioztatzen den ikerketa-deialdietan.**

Tesiak euskaraz egiteko doktore aurreko deialdian, euskaraz argitaratutako ikerlanek zuzendariaren merituetan balioesten dira; era berean, irakaskuntza-zama erabakitze merituaren euskarazko zientzia-ekoizpena kontuan hartzen da balorazioan. Euskal Herriko eta kanpoko erakundeekin elkarlanean aritu euskaraz plazaratutako ikerketa eta zientziaren zabalkundea bultzatzeko.

**4.4.2.3. Euskal eta kanpoko erakundeekin elkarlanean aritzea, zientzia eta euskaraz argitaratutako ikerketa bultzatzeko.**

Arabako Foru Aldundiak UPV/EHUrekin lankidetzan *Henrike Knörr Saria* sortu zen 2020an, Araban euskararen erabilerari buruzko ikerlanak bultzatzeko eta sustatzeko urtero ematen den saria. 28. taulan xehetasunak aurki daitezke:

**28. taula**

| 2021                                         | 2022                                               |
|----------------------------------------------|----------------------------------------------------|
| Letren Fakultateko MALari lotutako proiektua | Letren Fakultateko MALari lotutako proiektua       |
|                                              | Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikerketa-proiektua |

**4.4.2.4. Kongresu, biltzar zientifikoetan eta ikerketari lotutako zabaltze-ekimenetan, bereziki hedakuntza handiko ekitaldietan, euskararen presentzia handitzeko eta ikertzaile euskaldunen parte-hartzea bultzatzeko neurriak hartu.**

Besteak beste, makina-erremintako nazioarteko kongresuan euskararen presentzia handitzeko ahalegina egin da UPV/EHUko Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroko kideen laguntzarekin eta Ekaia aldizkariaren laguntzarekin. Aldizkarian ale berezia aurkeztu zen jardunaldietan.

**4.4.2.5. Doktore euskaldunen datu-basea elikatu eta ikertzaileen komunitateari ezagutarazi.**

UPV/EHUUn euskaraz defendatzen diren tesien epaimahaiak doktore euskaldunekin osatzeko, enpresa-munduko beharrei erantzuteko, eta orokorrean doktore euskaldunen beharrean dagoen edonori eskaintzen zaion aukera da datu-basea: <https://ehu.eus/doktoreeuskaldunak/>

Norberak eman behar du izena, bertan jasotako informazioa moderatzaile batek gainbegiratzen du, eta datuen babeserako legedia betetzen da. Orain arte jasotako datuak 29. taulan agertzen dira:

**29. taula**

| Doktore euskaldunak          | 660          |
|------------------------------|--------------|
| UPV/EHUkoak                  | 632 (% 95,7) |
| Beste unibertsitate batekoak | 10 (% 0,15)  |
| Enpresetakoak                | 18 (% 0,27)  |

**4.4.2.6. Zientziaren hedakuntza euskaraz bultzatzen duten ekimenak sustatu.**

Arlo honetan hainbat ekimen garatu dira azken urteotan, horietako batzuk aipatuko ditugu hemen. Bizkaiko Aldundiak laguntzen duen Kultura Zientifikoko Katedrarekin urtero lagundu ditugu zientzia eta ikerketa euskaraz zabaltzeko ekimenak: *Zientzia Kaiera* zabalkunde blogeko artikulatuak argitaratzeko, gazteei zuzendutako *Zientziaren historia* bideoen produkzioarako, baita zientzia gizarteratzeko formatu berritzaileak garatzeko; adibidez, urtero egin den «Jakinduriek mundue erreko dau» bertsozientzia emanaldia arrakastatsua, urtero Euskararen Astean antolatu izan dena.

Bi urtetik behin egiten den *Ikergazte* ikertzaile euskaldun gazteen kongresuaren antolaketan kolaboratzen du UPV/EHUK UEUrekin. Ikergazte kongresuaren ondoko argitalpenei dagokionez 30. taulan agertzen dira emaitzak eta argi ikus daiteke UPV/EHUren ekarpenaren ugaritasuna:

**30. taula**

|      | Denera | UPV/EHUkoak |
|------|--------|-------------|
| 2019 | 102    | 72 (% 71)   |
| 2021 | 150    | 114 (% 76)  |

4.4.2.7. *ESCI (Emerging Sources Citation Index) datu-basean sartzea lortzen duten UPV/EHUko aldizkari eta bildumetako zuzendaritzei euskaraz aurkeztutako artikulua onartzeko proposamena egin eta artikulua ingelesera itzultzeko laguntza eskaini.*

4.4.3. **UPV/EHUko euskarazko aldizkari zientifikoek eta bildumen kalitatea eta oihartzuna handitu.**

4.4.3.1. *Ikerketa deialdietan balioztatuak izan daitezen euskarazko aldizkari zientifikoek eta bildumek bete beharreko kalitate-irizpideak zehaztu eta irizpide horiek betetzen dituzten aldizkarien zerrenda egin.*

UPV/EHUn ikertzaileek prestatzeko kontratazio deialdiko II. modalitatean doktorego aurreko ikertzaileek tesia euskaraz egiteko diru-laguntza jasotzeko aukera dute. Deialdi horretan aurkeztu diren merituen artean aurkeztu diren euskarazko aldizkari zientifiko eta bildumek bete beharreko kalitate-irizpideak UPV/EHUko Euskara Zerbitzurekin batera adosten dira.

4.4.3.2. *Euskaraz argitaratzen diren aldizkari zientifikoek Latindex katalogoaren irizpideak bete ditzaten laguntza eskaini.*

Bibliotekak aldizkariari aholkuak ematen dizkie argitalpenen kalitatea hobetzeko adierazleak berrikusteko. Euskaraz argitaratzen dituzten aldizkariari dagokionez, *RVAP*, *Lan Harremanak*, *Gizaekoa* eta *e-Eguzkilo* aldizkariarekin lan egin du.

2018/19 ikasturtean, *RVAP* ([www.ivap.euskadi.eus/revap-presentacion/z16-a3rvap/es/](http://www.ivap.euskadi.eus/revap-presentacion/z16-a3rvap/es/)) eta *Lan Harremanak* ([https://ojs.ehu.es/index.php/Lan\\_Harremanak/index](https://ojs.ehu.es/index.php/Lan_Harremanak/index)) aldizkariarekin lankidetzan hasi zen biblioteka, Fecyt zigilua lortzeko (bi aldizkari horiek FECYT zigilua lortu zuten VII. deialdian, 2021) eta Latindex katalogoaren 2.0 bertsioan sartzeko.

Ondoren, *Gizaekoa* eta *e-Eguzkilo* aldizkariarekin hasi zen lankidetzan. Bibliotekak aholkularitzalana egiten du hainbat lan-ildotan: indexazioaren atalean, sarbide irekirako politikan, plagioan, bibliografian eta Orciden alorrean. Lankidetzan honen helburua argitalpenen eragina eta ikusgarritasuna hobetzea da. Eragina handitzeak Dialnet Metrikak bezalako proiektu estrategikoetan aldizkarien posizionamendua hobetzea dakar.

4.4.3.3. *Euskaraz argitaratzen diren bildumei edizio akademikoaren kalitatearen zigilua (CEA-APQ) lordezaten laguntza eskaini.*

4.4.3.4. *Ikertzaileen artean euskararen ezagutza handitu eta euskarazko komunikazio akademikoaren kalitatea bermatu.*

EPH2020 planaren baitan ikertzaileek aukera dute euskararen maila handitu eta euskarazko komunikazio akademikoaren kalitatea bermatzeko. Ikus 4.1.3.1. atala.

*4.4.3.5. Kontratatutako ikertzaileen (14/2011 legeko 22. artikulukoak eta iraunkorrek) euskara-gaitasuna erregistratu eta C1 maila egiaztatuta ez dutenei UPV/EHUko EIGA azterketara aurkezteko informazioa eman.*

*4.4.3.6. Kontratatutako ikertzaileei euskara ikasteko dauden laguntzen berri eman.*

EHP-2020 Planaren zabalkundea egin da eta parte hartu duten ikertzaile-kopurua 230etik 275era bitartekoa da (ikertzaile berak ikastaro batean baino gehiagotan parte hartzen baitu). Euskara ikasteko laguntzen berri irailean argitaratu ohi den deialdiaren bidez egiten da.

*4.4.3.7. Kontratatutako ikertzaileei euskarazko komunikazio akademikoa lantzeko berariazko formazioa eskaini.*

Ekintza bi hauek elkarlotuta daude eta txosten honetako hainbat helburu eta ekintza gauzatzeko sortu zen EPH-2020 Planaren barnean artatzen dira. Gure unibertsitateak kontratatzen dituen ikertzaileei euskaraz ikasteko aukerak ezagutarazten zaizkie, eta euskaraz lan egiteko erabateko gaitasuna ez duten ikertzaileei hizkuntza-prestakuntza eskaini. Horren adibide da EPH2020 Planeko ikastaroetan parte hartu duen ikertzaile-kopurua, 230tik 275ra bitartekoa (ikertzaile berak ikastaro batean baino gehiagotan parte hartzen baitu).

Bestetik, hizkuntza-premia espezifikoek erantzungo dien prestakuntza eskaintzen zaie, ikertzaileek eskuarki egin behar izaten dituzten unibertsitateko zereginak eskatzen duten aditutasun-maila eskura dezaten.

## V. ARDATZA: ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO PERTSONALA (AZP)

### 4.5.1. Administrazio-atal elebidunak eta euskarazko administrazio-atalak definitu.

Euskararen III. Plan Gidarian euskarazko administrazio-atalak eta administrazio atal elebidunak identifikatu ziren. I. eranskinean jasotzen dira planaren hasierako euskarazko administrazio-atalak zeintzuk diren. Euskarazko administrazio-atalak baldintza hauek betetzen dituztenak dira:

1. Atalburuak eta atala osatzen duten lanpostu guztien edo ia guztien (% 90etik gora) lanpostuetan derrigortasun-data ezarrita izatea.
2. Atalburu den langileak eta gainerako langile guztiek edo ia guztiek (% 90etik gora) diharduten lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea. Laugarren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetan, kontuan izango da langileak hirugarren hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea.
3. Zeregin gehienak euskaraz betetzea, betiere herritarrek zerbitzu-hizkuntza hautatzeko duten eskubidea urratu gabe.
4. Ikastegien kasuan, euskarazko atal administratiboa izateko urrezko Bikain ziurtagiria lortu beharko dute.

Beheko taulan Planeko I. eranskinean jasotako euskarazko atalak agertzen dira eta Planaren indarraldiaren amaieran atal administratibo bakoitzaren berri ematen da.

### I. eranskina moldatua:

#### Euskarazko administrazio-atalak

|      | Atal administratiboak                            | Lanpostu-kopurua |      | Derrigortasun datak |        |        | HE egiaztatuta |      | Atalburu euskalduna |
|------|--------------------------------------------------|------------------|------|---------------------|--------|--------|----------------|------|---------------------|
